



DEIALDIA, BI IZANGAI-ZERREDA –BAT PRESTAKUNTZARAKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO– HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO TEKNIKARI LANPOSTUAN ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Giza Baliabideetako zuzendariak deialdi hauek onetsi ditu 2024ko maiatzaren 28an:

I. DEIALDIA, IZANGAI-ZERREDA BAT OSATZEKO, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO TEKNIKARI ARITZE ALDERA.

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.- Deialdia iragartzen da, izangaien zerrenda bat hautaprobez bidez osatzeko, prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritze aldera, Garapenaren aldeko Lankidetzako teknikari lanpostuan, Iruñeko Udalan eta haren erakunde autonomoetan aldi-aldi gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren eta/edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, deitutako lanpostuaren maila berekoak edo beheragokoak, eta eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia agorturik ez edukitzea.
- b) Lanpostuan benetan zerbitzua ematen gutxienez hiru urte eman izana.
- c) Borondatezko nahiz behartutako eszedentzia ez egotea, borondatezko eszedentzia dagoen pertsona administrazio deitzaileko beste lanpostu finko edo aldi baterako batean ari denean izan ezik.
- d) Unibertsitateko diplomatura- edo gradu-titulua, Ingeniaritza Teknikoko edo Arkitekto Teknikoko titulua edo horien baliokidea den titulua edukitzea, edo halakoa erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztatzea eduki beharko da.

2.2. Izangaiek agiriaren bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1. apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntza-aldian ere.

Hirugarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.



Hautapen-prozesua Ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunetan xedatutakoarekin bat egingen da.

Laugarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko izendapena honako hauetan ezarritakoarekin bat egingen da: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako Erabakian berariaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela aldi baterako kontratazioarako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrendarekiko.

II. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDIA BAT OSATZEKO, ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAN GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO TEKNIKARI ARITZE ALDERA.

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.- Deialdia iragartzen da, izangaien zerrenda bat hautaprobei bidez osatzeko, Garapenaren aldeko Lankidetzako teknikari lanpostuan aldi baterako aritzeko, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldi-aldi gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa.

Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere parte hartzen ahalko dute, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

d) Unibertsitateko diplomatura- edo gradu-titulua, Ingeniaritza Teknikoko edo Arkitekto Teknikoko titulua edo horien baliokidea den titulua edukitzea, edo halakoa erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzean.



Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

- d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea, bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.
- f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzeari galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Izangaiek agiriaren bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1. apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua Ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunean xedatutakoarekin bat egiten da.

Laugarrena.- Aldi baterako kontrataziorako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egiten da: Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrek 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia -Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena- eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

III. BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK

Lehen a. Eskabideak.

1.1. Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskaerak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdi honen testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskaerak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

1.2. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.



Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskaera telematikoki aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraiki: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

1.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik ordaindu beharreko tasa 11,20 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskaera formalizatzeko unean, telematikoki ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

1.4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaera online aurkezteko unean, izangaiek, kasuaren arabera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

-Unibertsitateko diplomatura- edo gradu-titulua, Ingeniaritza Teknikoko edo Arkitekto Teknikoko titulua edo horien baliokidea den titulua, edo halakoa erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

- Desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.

1.5. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta baliorik gabe geldituko dira ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

1.6. Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, eskatuko dira behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Bigarrena. Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

2.1. Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

2.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, eskaerak aurkezteko 1.2. oinarrian aipatutako izapide elektronikoko beraren bidez.



2.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautaprobea egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor baztertu ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsi eta webgunean argitaratuko da, hautaprobea egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

2.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko, baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

2.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdietan parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legezkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Hirugarrena. Probak.

Hautapen-prozesua 2024ko urrian hasiko da, eta egun berean egingen diren bi proba izanen ditu. Pertsona guztiek egin beharko dituzte bi probak, baina lehenengo proba gainditu eta puntuazio onenak lortu dituzten lehenengo 25ei bakarrik zuzenduko zaie bigarren proba. Puntuazio horien artean berdinketarik izanez gero, bigarren proba zuzenduko zaie berdinduta dauden guztiei.

3.1. Lehen proba. Proba teorikoa: izangaiek test erako galderak dituen galdetegi bat erantzun beharko dute idatziz, epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran. Galderak deialdi honen I. eranskineko gaitegian agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira. Hainbat aukera egonen dira galdera bakoitzari erantzuteko, eta horietako bat baino ez da izanen baliozkoa.

Probak gehienez ere 40 puntuko kalifikazioa izanen du. Probaren balorazio-irizpideak eta akatsak nola zigortuko diren hura hasi aurretik zehaztuko dira. Proba gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (20 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

3.2. Bigarren proba. Proba teoriko-praktikoa: kasu praktikoa bat ebatzi beharko da, epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran.

Probak gehienez ere 60 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (30 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira probetara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

3.3. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoan aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

3.4. Proba egin ondoren, udal-webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.

Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Laugarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

4.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Carlos Andrés Uranga, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorreko zuzendaria

Epaimahaiburu ordezkoa: Elian Peña Guerrero, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzeko eta Euskarako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaikidea: Ana Goya Arive, Iruñeko Udaleko Lankidetzako teknikaria.

Epaimahaikide ordezkoa: Asun Sanz Surio, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko Autonomia Programako teknikaria.

Epaimahaikidea: Juan Jesus Echaide Baigorri, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko Komunikazioko Alorreko teknikaria.

Epaimahaikide ordezkoa: Ana Laborda Cano, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko Lankidetzako teknikaria.

Epaimahaikidea: Cristina Colell Baztán, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Jesús Mina Turrillas, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Idazkaria: Benita Soteras Ramírez, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorreko idazkari teknikoa.

Idazkari ordezkoa: Mónica Lana Elola, Hiri Kontserbazioko eta Osasuneko Alorreko idazkari teknikoa.

4.2. Hautaprobak egiten hasi aurretik eratu beharko da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoez, kontuan harturik ordezko izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.

4.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.



Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errekusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabehera guztiak.

4.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Bosgarrena.- Gaingitu dutenen zerrenda.

5.1. Behin proben kalifikazioa amaituta, epaimahaiak webgunean argitaratuko ditu, bereizirik, honako zerrenda hauek:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gaingitu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.
- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gaingitu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

5.2. Izangaien puntuazioan berdinketarik gertatuz gero Giza Baliabideetako Alorrean xede horretarako eginen den zozketaren bidez ebatziko dira, berdinduta dauden izangaiei deituko zaizkizkien zozketan egon daitezkeen.

Izangai-zerrendak izangaia deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat egiten zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako zer gaitasun duten zehazte aldera.

Seigarrena. Izangaien zerrendak eta dei egitea.

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebatzen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaia deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

Ebatzen honek onesten duen deialdiaren oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehentasuna edukiko dutela aldi baterako kontratazioarako izangaien aurretik, lanpostuaren eta espezialitatearen arabera. Momentu horretan aurkeztu beharko dituzte III. apartatuan aipatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatutako edo legeekin bat kaudutako. Deialdi guztietarako arau komunak, 1.4. oinarria.

Zazpigarrena. Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal da, deialdia egin duen udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.



Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsio hauetariko bat paratzen ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertzeako errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsioak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.

I - ERANSKINA - GAITEGIA

1.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. I. titulua. Prozeduran interesdun direnak. II. titulua. Administrazio publikoen jarduera.

2.-5/2001 Foru Legea, martxoaren 9koa, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzkoa, 4/2010 Foru Legeak, apirilaren 6koak, aldatu zuena.

3.-1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoa. 2023ko 44. EAO, otsailaren 21ekoa.

4.- Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra. I., II., III. eta IV. tituluak. (www.pamplona.es/eu)

5.- Iruñeko Udala: Udalbatza. Udal Gobernuak: Tokiko Gobernu Batzarra. Osoko Bilkura. Batzordeak. Udal Taldeak. Zinegotziak.

6.- Iruñeko Udalaren Udal-antolaketari buruzko Dekretua.

7.-Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren II. Plan Zuzentzailea (2022-2025).

8.-Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa. 2023ko memoria.

9.-Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa. Garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza. Garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egitera bideratutako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak. 2023. urtea.

10.-Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa. Laguntza hegoaldeko giza garapenari eta garapen jasangarriari. Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako proiektuak egitera bideratutako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak. 2023. urtea.

11.-Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa. Giza Larrialdietako Laguntza. Larrialdiko jarduketak humanitarioak egiten dituzten GGKEei dirulaguntzak emateko deialdi publikoaren oinarriak. 2023. urtea.

12.-Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluaren erregelamendua. 1999ko 67. NAO, maiatzaren 28koa.

13.-Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea (2021-2024). Nafarroako Gobernuak.

14.- Lankidetzaren deszentralizatuaren modalitateak. Lankidetzaren Deszentralizatuaren Behatokia. (1. eta 2. kapituluak). Johanna Fernández Rodríguez. Bartzelonako Diputazioa.



15.-Lankidetzaren deszentralizatuko proiektuen kudeaketa. Beatriz Lantero. Lankidetzaren Deszentralizatuaren Behatokia. Bartzelonako Diputazioa.

16.-Nafarroako lankidetzako tresnetan zeharkako ikuspegiak aplikatzeko gida. Giza Eskubideetan oinarritutako ikuspegia. Nafarroako Gobernua. 2022ko abendua

17.- Garapenerako lankidetzaren egindako ebaluazioen erreferentziazko terminoak prestatzeko orientabideak. Kanpo Arazoetarako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioa. 2022ko urtarrila

18.- Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren ahalmenak eta jardunbideak: Nazioarteko ikuspegia. Euskal Herriko Unibertsitatea. Hegoa Institutua, 2022. (www.hegoa.ehu.eus)

19.-Bidezko merkataritza ezagutzea: mitoak, errealitateak eta ohiko galderak Bidezko Merkataritzaren 10 printzipioak zenbakitan eta kasu praktikoetan 2. KOADERNOA. Ideiak. Bidezko merkataritza(www.ideas.coop)

20.- Nafarroako GGKEen Koordinakundea. Nazioarteko Boluntariotzako Gida. (www.congdnabarra.org)

Oharra. - Deialdiaren aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean zein egunetan argitaratu eta egun horretan indarra duen araudiaren arabera eskatuko dira gai guztiak.